

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 12/2023

ERABAKIA, (...)K, (...) TALDEKO LEGEBILTZARKIDEAK, ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDE HONETAN AURKEZTU ZUEN AURRETIAZKO KONSULTA BATEN HARIRA EGINDAKO KONSULTARI BURUZKOA.

1.- (...)k kontsulta bat helarazi dio Etika Publikorako Batzordeari (EPB), Batzorde honi aurkeztu zion eta 4/2022 Erabakia ekarri zuen aurreko kontsulta baten gainean.

2.- Bidalitako idazkian adierazten du bere ustez Batzordeak urratu egin duela Kode Étikoaren 16.6 artikulua, aurreko kontsulta izapidetzean haren identitatea agerian utzi baitzen. Zehazki, adierazten du kontsulta Jaurlaritzako (...)i bidali zitzaionean, osorik igorri zela, haren nortasuna ezkutatu gabe, eta, ondorioz, mehatxuzko mezu bat jaso zuela (...)ri horren abokatuarengandik.

3.- Eskatzen du Etika Publikorako Batzordeak berri eman dezala ea nork bidali zion kontsulta salatutako (...)ri —nor zen agerian utzita—, eta balora dezala ea horrek Kode Etikoa edo aplika daitekeen beste edozein lege urratzea ekarri zuen; ea mehatxuzko mezu elektronikoa bat bidaltzeak kode etikoa urratzen duen eta, azkenik, ea etikoa den mezu elektronikoa bidaltzearen aurrean inolako jarduketarik ez egitea.

4.- Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EAEko Administrazioeko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek eta bestelako instantziek EJKren aplikazioari buruz egiten dituzten kontsultak ebaztea.

5.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.

5.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tarteak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.

ERABAKIA:

1.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago egun. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatutako Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jardura publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Bestalde, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen (JKIGL) helburua da eginkizun publikoak dituztenek betebeharrak etikoa zorrotz betetzea, bai eta betebeharrak sozial jakin bat betetzea ere; izan ere, lege horren asmoa da gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa babestea, bai eta bizitza politikoan duen jardunaren gardentasuna zaintzea ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen jokabide-kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren eredia zein den azaltzea edo ezagutaraztea: testu arauemailea ere bada, eta, beraz, karguak funtzio publikoan jarduten duenean zer betebeharrak dituen ezartzen du, legearen indarrez.

Ilde horretan, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (lege horretan arautzen dira kargu publikodunen jokabide-kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko asmoz. Horren arauketa egungo EJKn dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du EPB honek, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzei buruzko keak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea».

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- (...) taldeko legebiltzarkide (...)k EPBren esku-hartzea eskatu zuen, Jaurlaritzako kargu publikodun baten portaera azter zedin. Kontsulta horren ondorioz, Batzordearen 4/2022 Erabakia hartu zen, eta haren webgunean argitaratu zen, salatzailearen eta salatuaren datu pertsonal guztiak ezabatu ondoren.

2.- EJKren mendeko kargu publikodunari buruzko salaketa edo kontsulta bat jaso ondoren, eta edozein erabaki hartu aurretik, EPBk berdin jokatzeko beti: aurkeztutako keari edo salaketari buruzko informazioa bidaltzen zaio interesdunari, egoki iritzitako adierazpenak eta alegazioak egin ditzan; halaxe egin zen (...)k aurkeztutako salaketaren kasuan.

Egin beharreko izapideak eginda eta bai salaketa, bai interesdunak egindako alegazioak aztertu ondoren, EPBk erabakia hartu zuen, aho batez. Lehenago adierazi den bezala, erabaki hori webgunean argitaratu zen, interesdunei aurretiaz jakinarazpena eginda eta behin salatzailearen eta salatuaren datu pertsonalak ezabatuta.

3.- 2022ko uztailan, EPBk hartutako erabaki horren kopia igorri zitzaion bai kontsulta aurkeztu zuen legebiltzarkideari, bai salatutako goi-kargudunari.

Uztailan bertan, salatutako kargu publikodunaren abokatuak mezu elektronikoa bidali zion legebiltzarkideari; bertan adierazi zion Etika Batzordearen Erabakia balio gabetzeko egokitzat jotzen zituen ekintzak gauzatuko zituela, eta gogorarazi zion Erabakiaren inguruan diskrezio-betebeharra zuela, bai eta hura baliatu, hedatu edo erreproduzitzea saihesteko eginbeharra ere. Azkenik, mezuan adierazi zuen, eginbehar hori bete ezean, eskubidea zutela egokiak diren lege-ekintzak abiarazteko.

Mezu horren kopia bat igorri zitzaion Etika Publikorako Batzordeko buru eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari.

4.- EPBren irizpenean adierazi zen salatutako kargu publikodunak "ez zuela behar bezala bete" Etika Kodea, eta erabaki zuen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) iragarki bat argitaratzea inguruabar hori jakinarazteko. Iragarkia 2022ko urriaren 13ko EHAAn argitaratu zen.

5.- Martxoan, legebiltzarkideak EPBren erabakiaren jakinarazpena jaso eta salaketaren xede den kargu publikodunaren abokatuaren mezu elektronikoa jaso eta zortzi hilabetera, EPBren esku-hartzea eskatzen duen pertsonaren legebiltzar-taldeak EPBren funtzionamendu irregularra egon zela salatu zuen, salaketa aurkeztu zuen legebiltzarkidearen anonimotasuna ez gordetzeagatik eta jasotako mehatxuen aurrean ez jarduteagatik.

6.- Kontsulta aurkeztu zuen pertsona kide den legebiltzar-taldearen salaketaren berri eman zuen prentsak, adierazi den bezala. Salaketa horretan nabarmentzen zen «EPBren funtzionamendu irregularra egon zela eta Lakuako Gobernuak "atzamar bat bera ere duela mugitu" (...) legebiltzarkideak (...)ren abokatuarengandik jasan zituen mehatxuen aurrean».

7. Martxoan bertan, (...) legebiltzar-taldeak legebiltzar-ekimen ugari aurkeztu zituen (osoko bilkuran ahoz erantzuteko galderak, idatziz erantzuteko galderak), bai eta EPB desegiteko eskatzen duen lege-proposamen bat ere; ekimen horien guztien berri eman dute hainbat hedabidek.

8.- Legebiltzarrera eramandako gai guztiei erantzun egokia eman die EPBko presidentek, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua den aldetik, eta kasu guztietan gogorarazi du anonimotasunaren auzia Batzordearen bilkuretan jorratu dela.

9.- 2023ko apirilean, EPBri kontsulta aurkeztu zion legebiltzarkideak Datuak Babesteko Euskal Bulegora (DBEB) jo zuen, eta eskatu zion azter zezala ea Batzordeak urratu ote zuen anonimotasuna gordetzeko betebeharra, eta horrek eragin ote zuen kargu publikodunaren abokatuaren mehatxuak jasotzea.

10.- DBEBk kontsulta jasota, EPBri helarazi zion, gaiari buruzko txostena egin zezan eta hura ebazteko garrantzitsu irizten zion dokumentazioa bidal zezan.

Halaxe egin zuen Batzordeak, emandako epearen barruan. Txosten bat ez ezik, 4/2022 Erabakiari dagozkion dokumentu guztien kopia bana ere bidali zuen. Txosten horretan, besteak beste, honako argudio hauek jaso ziren:

- Kontsulta/salaketa aurkezteko moduak aditzera ematen salaketa-egileak ez zuela partikular gisa aurkeztu, ordezkarri publiko gisa baizik.
- Batzordeak dagoeneko aztertua du anonimotasunaren kontua: konfidentzialtasuna bermatu egiten da, baldin eta salatzailearen aurkako errepresaliaren bat egon daitekeela uste bada.
- Salatutako kargu publikodunaren abokatuarengandik jasotako «mehatxuak» deituriko horiek lege-ekintzak baliatzeko aukerari egiten diote erreferentzia, eta hori ezin da inola ere halakotzat hartu; izan ere, «mehatxu» kontzeptua Zigor Kodean araututa dago, eta ezin da inondik inora halakotzat hartu inork lege-ekintzak abiarazteko eskubidea daukala adieraztea.

9.- Aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea erabaki zuen DBEBk, eta, horrenbestez, EPBk ulertu behar du Etika Publikorako Batzordeak ez zuela inolako jarduera irregularririk egin.

DBEBren zuzendariak espediente horretan emandako ebazpenak honako hau adierazten du, besteak beste:

- «Manuak (16. art. EJK) konfidentziasunerako eginbearra ezartzen du Batzordeko kideek erabiltzen duten informazioari buruz; xedea da informazio hori hirugarrenei oinarri juridikorik gabe komunika dakiela eragozte; hala ere, ezin da esan salatutako pertsona, Batzordearen gaitzespena jasoko duen hori –gaitzespenik egin behar izatekotan- hirugarren denik ».
- «Horri dagokionez, esanguratsuak dira duela gutxi onartutako martxoaren 16ko 1/2023 Legearen, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa...”salatzaileak hala eskatzen badu, haren identitatea babesteko neurriak hartuko ditu Administrazioak».
- Salaketa legebiltzarkide batek sinatu duenez, eta salaketa nola aurkeztu den kontuan hartuta, «esan dezakegu (...)k partaidetza publikorako eskubidearen barruan jardun duela [...] Legebiltzarkideen *ius in officium* izenekoaren zati den informaziorako eskubide hori eskubide kualifikatua da, edozein pertsonak gardentasunaren arloko araudiaren babespean egikaritu ahal duenarekin konparatuta; horregatik, informaziora irispidea izateko eskabide askotan aipatzen da eskatzailea legebiltzarkidea dela eta hori ez da kasualitatea, inondik inora ere ».
- «Bestalde, legebiltzarkide izateak esan nahi du norberak pribatutasunerako iguripen txikiagoak izan beharko lituzkeela edozein pertsonak izan ditzakeenen aldean ».
- «Erreklamazioaren xede den datuen tratamendua aztertutakoan, ondorioztatzen dugu informazioa salatzaileari eta beste inori komunikatu zitzaiola, informazio hori legebiltzarkide batek kontrol-eginkizuna egikaritzean sortu dela eta, gainera, kasu honetan, legebiltzarkide horren pribatutasuna ez zaiela nagusitzen babestu beharreko beste ondasun judidiko batzuei. ».

Hori guztia dela-eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak erreklamazioa artxibatzea ebatzi du.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

LEHENENGOA.- Ez onartzea (...)k aurkeztutako kontsulta, ez baitu zerikusirik kargu publikodunek Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideak ustez urratzarekin.

BIGARRENA.- Berriz gogoraraztea interesdunari EPBko kideek sekretupean gorde behar dutela beren eginkizunak betetzean jakin duten informazio guztia; bereziki, aztertutako gertakariei, ikerketen eta eztabaiden edukiari eta hartutako erabakiei buruzko informazioa, bai eta datu pertsonalen ingurukoa ere.

Prozedurari buruzko azken erabakiak baino ezin izango dira plazaratu, betiere eragindako pertsonen datuen babesa bermatuta.


Olatz Garamendi Landa
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 17a.